

Euskal AEko biztanleriaren batez besteko errenta %2,4 hazi da 2016an aurreko urtearen aldean

Jasotzaile nagusia 40 urte baino gutxiagokoa edo 70 urte baino gehiagokoa duten familiek batez bestekoaren azpitiko diru-sarrerak dituzte

Lurralde-banaketari dagokionez, ia 2.000 euroko aldea dago Gipuzkoan lortutakoaren (21.714 €) eta Araban (19.889 €) eta Bizkaian (19.818 €) lortutakoen artean. Gipuzkoa ere nabarmendu da aurreko urtearen aldean izan duen portaera hobeagatik, %5,1eko hazkundearekin, Bizkaiaren (+%1,2) eta Arabaren (+%0,5) aurrean.

1. taula. Batez besteko errenta pertsonala, motari jarraiki, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera (eurotan). 2016

	Euskal AE			Araba/Álava			Bizkaia			Gipuzkoa		
	Total	Gizonak	makumea	Total	Gizonak	makumea	Total	Gizonak	makumea	Total	Gizonak	makumea
Errenta guztira	20.443	25.696	15.578	19.889	24.738	15.245	19.818	25.031	15.078	21.714	27.202	16.556
Lanaren errenta	12.182	15.394	9.207	12.204	15.186	9.348	11.956	15.164	9.040	12.541	15.859	9.422
Capital errenta	1.661	1.896	1.444	1.381	1.565	1.206	1.528	1.665	1.403	2.006	2.416	1.620
Jardueren errenta	963	1.356	598	912	1.255	583	947	1.362	569	1.011	1.392	653
Transferentziak	5.637	7.051	4.328	5.392	6.733	4.108	5.387	6.840	4.067	6.157	7.535	4.861
Errenta baliagarria	17.149	21.288	13.315	16.694	20.481	13.068	16.565	20.630	12.869	18.306	22.712	14.165

Iturria: Eustat. Errenta pertsonal eta familiarren estatistika

Hiriburuetan mantentzen dira aipaturiko aldeak. Halatan, egoitza Donostian dutenen batez besteko errenta 24.552 €-koa da, zifra handiagoa Bilbokoa (20.526 €) eta Gasteizkoa (20.115 €) baino. Aldeak gorabehera, bai Donostia bai Bilbo daude Euskal AEko batez bestekoaren gainetik, baina Gasteiz azpitik da.

Euskal AEko biztanleriaren errenta erabilgarria, behin zergak kenduta, 2016an 17.149 €-koa izan da, eta lurraldeko aldeak errepikatzen dira, zeren Gipuzkoako errenta erabilgarria (18.306 €) izan baita berriz Arabakoa eta Bizkaikoa baino handiagoa (16.694 € eta 16.565 €, hurrenez hurren).

18 urte eta gehiago dituzten egoiliarren artean, eta errentaren banaketari dagokionez, %60,3 daude Euskal AEko batez besteko errentaren azpitik, baina hartu behar da kontuan, dena den, ezen multzo horretan daudela sartuak baita 2016an errentarik batere jaso ez dutenak ere (%13,1). Beste muturrean, populazioaren %11,6k du batez bestekoa bikoizten duen errenta; alegia, 40.800 € pasa.


18 urte eta gehiago eta egoitza Euskal AEn dutenen artean, erdiek lortu dituzte 2016an 15.581 € baino gutxiago. Zifra hori errentaren mediana da.

Eskualdeei dagokionez, bada alderik Euskal AEko hogeik eskualdeen artean. Horietarik bederatzik batez bestekoaren gainetik familia-errentak dituzte. Nabarmenenak: Gorbeia Inguruak, Araban (49.920 €); Plentzia-Mungia, Bizkaian (49.193 €), eta Debagoiena, Gipuzkoan (47.292 €). Aldiz, gainerako hamaika eskualdeak batez bestekoaren azpitik daude. Behealdean hauek daude: Enkarterri, Bizkaian (35.770 €); Bidasoa Beherea, Gipuzkoan (40.001 €), eta Arabako Mendialdea (33.899 €), Euskal AEko errenta familiar baxuena duena.

Bestalde, bada alderik errenta familiarretan jasotzaile nagusiaren sexuaren arabera. Familian errenta-jasotzaile nagusia gizon denean, batez besteko diru-sarrerak 46.709 € dira eta familia gehienak geruza ertain eta goikoetan metatzen dira, eta, emakume denean, familiarren batez

besteko errenta 36.819 €-koa da eta beheko errenta-geruzetan daude; 9.001-12.000 €-ko geruzan familia horien %9 daude.

1. grafikoa. Familiak, famili errentaren geruzari jarraiki, hartzaile nagusiaren sexuaren arabera. Euskal AE (%). 2016



Iturria: Eustat. Errenta pertsonal eta familiarraren estatistika